

ASTELEHENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2026ko UZTAILAREN 06a. 08:30.

ASTELEHENA (2026/07/06)

Zerua oskarbi edo hodei gutxirekin egongo da. Haize ahula eta aldakorra ibiliko da, hego-osagaia nagusituz; eguerdi aldera ipar-ekialdetik finkatuko da kostaldean eta arratsaldean barnealdean, tarte biziekin eta bolada gogor batzuekin Araban. Temperatura maximoak Kantauri isurialdean nabarmen edo asko igoko dira eta nahikoa gainontzeko tokietan.

Temperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	34
Bilbao	38
Gasteiz	38
Arrasate	39

ASTEARTEA (2026/07/07)

Zerua hodei gutxirekin egongo da, erdi mailako hodei eta goi-hodei batzuekin; arratsaldetik aurrera kostaldean behe-hodeien tarteak ager daitezke. Barnealdean bero-hodeiak garatuko dira arratsalde-gau partean eta baliteke han-hemenka zaparrada trumoiatsuak egitea. Kostaldean mendebal-osagaiko haize ahula ibiliko da, ipar-mendebaldekoa nagusi, bolada gogor batzuekin. Barnealdean haize ahula eta aldakorra ibiliko da, goizean goiz hego-osagaia nagusi; arratsaldean ipar-osagaitik finkatu eta indartu egingo da, bolada gogorrekin Araban. Ekaitz-guneetan haize bolada gogorrek edo oso gogorrek izan daitezke. Temperatura minimoak Kantauri isurialdean nahikoa igoko dira. Temperatura maximoak Kantauri isurialdean nahikoa edo nabarmen jaitsiko dira, kostaldeko zenbait lekutan asko; Mediterraneo isurialdean aldaketarik ez.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	20	28
Bilbao	21	29
Gasteiz	15	38
Arrasate	18	36

ASTEAZKENA (2026/07/08)

Zerua hodei gutxirekin egongo da, goizaldean eta arratsalde-gau partean tarte hodeitsuekin; baliteke Kantauri isurialdean behe-hodeien tarteak agertzea, bereziki kostaldean. Arratsalde-gau partean barnealdean han-hemenka zaparrada trumoiatsuak egiteko probabilitatea txikia da. Kostaldean mendebal-osagaiko haize ahula ibiliko da, ipar-mendebaldekoa nagusi, bolada gogor batzuekin. Barnealdean haize ahula eta aldakorra ibiliko da, arratsaldean ipar/ipar-ekialdekoa eta bolada gogorrekin; arratsaldean ipar-osagaitik ibiliko da, Araban bolada gogorrekin. Temperatura minimoetan aldaketarik ez edo gutxi igoko dira. Temperatura maximoak nahikoa jaitsiko dira eta Arabako hegoaldean aldaketarik ez.

OSTEGUNA (2026/07/09)

Zerua partez hodeitsu egongo da, arratsalde-gauetan bero-hodeiekin. Kantauri isurialdean behe-hodeien tarteak agertuko dira, bereziki kostaldean. Arratsalde-gau partean noizbehinka zaparrada txiki-ertain eta trumoiatsuak bota ditzake. Barnealdean haize ahula eta aldakorra ibiliko da, kostaldean mendebal-osagaikoa. Arratsaldean ipar-osagaiko haizea ibiliko da, bolada gogor batzuekin. Tenperaturaren aldaketarik ez edo gutxi jaitsiko da.